







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %6,3 egin zuen behera urrian, 2015. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industriaren %9,1 jaitsi zen eta etxekoan %7,3; zerbitzu arloan, berriz, %10,2 igo zen. Urrira arteko kontsumo metatuak %5,9 egin zuen behera; 2015eko epealdi berarekin erkatuta; etxeko sektorean %5,8 jaitsi zen, industriaren %8,3 eta zerbitzu arloan %1. Industrian gora egin zuten sektoreak, besteak beste, hauexek izan ziren: garraioibideen eraikuntza eta ontzigitza (+%8,1), burdinazkoa ez den metalurgia (+%7,4) eta kautxuzko eratorriak (+%4,9). Behera egin zuten sektoreak, gehienbat, siderurgiaren (-%20,4) eraginez izan zen.

Gas naturala







Urrian, gas naturalaren guztizko kontsumoak %0,3 egin zuen gora, 2015eko urrian izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %57,5 igo zen eta gainerako sektoreena, ordea, %10,1 jaitsi zen. Urrira arteko kontsumo metatuak %12,2 egin du behera, aurreko epealdiaren aldean, (-%34,3 CCTT-n eta -%7,3 gainerako sektoretan).

Erregaiak garraioan

Irailean, garraioan erregaien kontsumoa %6,4 igo zen, 2015. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %3,3 egin zuen gora eta A gasolioarenak %6,8. Irailera arteko kontsumo metatua %4,7 igo da, 2015eko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %1,4 egin zuen gora eta A gasolioarenak %5,1.

Iturriak: EEEk prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

Urrian, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 96,2 milioi kupel izan zen (2015eko urrian izandakoaren aldean, %2,1 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %3,3 egin zuen gora kontsumoak, 14,3 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,6 egin zuen gora, eta 11,7 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan %2,3 igo zen, eta 19,5 Mbpd kopuruan kokatu zen.

Munduan, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,4 igo da, oro har, Txinan %3,6, AEBetan %0,2 eta Europar Batasunean %1,3.






Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %6,8 egin zuen gora urrian, 2015eko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Urrira bitartean izandako kontsumo metatuak %1,6 egin zuen behera. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen urrian, %0,6, 2015eko urrian izandakoaren aldean. Urrira bitartean izandako kontsumo metatuak %0,1 egin zuen behera.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %5,7 egin zuen gora irailan, 2015eko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %5,8 igo zen eta gasolioena %5,2. Irailera bitarteko kontsumo metatuak %3,5 egin zuen gora, 2015. urteko epealdiaren aldean, (%2,8 igo zen gasolinena eta %3,7 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %2,2 egin zuen behera irailan; irailera bitarteko kontsumo metatua %6 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 49,7 \$ (44,8 €) izan zen urrian. Urte mugikorren batez besteko prezioak %25,8 egin zuen behera (%23,2 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 52,8 €/MWh izan zen urrian; duela urtebetearen aldean, %5,9 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 14,3 €/MWh izan zen irailan, eta %26,7 jaitsi zen, 2015eko hil berean izandakoarekin erkatuta. Urrian, EGIX-en prezioa 17,8 €/MWh izan zen (2015eko urrian izandakoarekin alderatuta, %2,1 jaitsi zen). Spot merkatuetan, urrian Henry Hub-en prezioa 9,1 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 17,5 €/MWh (2015eko hil horretan izandakoaren aldean, %29,5 egin zuen gora eta %32,6 egin zuen behera, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, irailan, gasolioaren prezioa 1,01 €/l izan zen (urtebeteen %4,6 jaitsi da), eta gasolinarena 1,14 €/l (urtebeteen %1,9 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,6 €/t izan zen urrian, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %32,6 egin du behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.